# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak
# ASTEKO LABURPENA

2018ko abenduaren 10etik 14rako astea

- **INGURU MAKROA:**
  - ASTEKO DATUEN PODIUMA
  - KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI…
- **ASTE HONETAN MERKATUETAN**
- **GURE IKUSPEGIA**

# INGURU MAKROA

kutxabank gestión

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

## :UROPA: EBZ-REN BILERA




### Datuaren analisia

3Zk % 0an mantendu zituen interes-tasak, eta 2019ko uda igaro arte maila horiei eutsiko diela ıgarri zuen, eta behar adina denbora, edozelan ere. Horrez gain, erakundeak adierazi zuen tarrilean bonuak erosteari utziko diola, eta bonuen berrinbertsioak lehen interes-tasen igoeratik ıratago eramango dituela. Erakundeak, bestalde, beherantz berrikusi zituen datozen ‹italdietarako aurreikuspen ekonomikoak. Zehatz-mehatz, Euroguneko aurtengo BPGd-a % 9koa izatea espero du (irailean aurreikusitakoa baino hamarren bat gutxiago). Hona hemen ırrengo ekitaldietarako iragarpenak: 2019an % 1,7 (aurreko txostenean baino hamarren bat ıtxiago), 2020an % 1,7 (aurreikuspenak mantendu ditu) eta 2021erako % 1,5eko BPGd-a iragarri ı. Inflazioari dagokionez, 2018rako aurreikuspena % 1,8ra igo zuen, irailean espero zuen % 7aren aldean. Nolanahi ere, 2019rako iragarpena % 1,6ra jaitsi zuen, aurreko % 1,7tik.

### Adierazlearen azalpena

ıropako Banku Zentrala Euroguneko 19 estatu kideen diru-politika kudeatzeaz arduratzen den əkundea da. 1998an eratu zen Amsterdameko Tratatuaren ondorioz, eta Alemanian dauka oitza. Gaur egun Mario Draghi da haren buru, Italiako Bankuaren gobernadore ohia. EBZren eta re diru-politikako batzordearen helburu nagusia euroguneko prezioen egonkortasunari eustea da. ıro-sistemak Erkidegoaren politika ekonomikoak ere bultzatu beharko ditu, haren helburuak bete zan laguntzeko. Horretarako, ezinbestekoa da enplegu-maila altu eta hazkunde iraunkor ez-lazionista bati eustea.

# INGURU MAKROA

kutxabank gestión

# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## ΞUROGUNEA: MANUFAKTUREN ETA CAIXIN ZERBITZUEN PMIa




### Datuaren analisia

ıroguneko jarduera ekonomikoaren hazkundeak behera egin du, eta lau urtetan izan duen daturik :errena lortu du abenduan. Sendotasun ekonomikoaren adierazgarri den **PMI** konposatuaren **dizea** 51,3ra jaitsi da abenduan, azaroko 52,7tik, mailarik baxuena 2014ko azarotik. Hain zuzen e, Zerbitzuen PMIarena izan da jaitsierarik handiena; 51,4raino egin baitu behera azaroko 53,4tik, :ken berrogeita bederatzi hiletako irakurketarik baxuena. Manufakturen sektoreko PMIa, bestalde, :aroko 51,8tik 51,4ra jaitsi da, hirurogeita hamalau hiletan izan duen daturik txarrena. Markiten abera, 'jaka horiek' Frantzian egin berri dituzten protestak eta Alemaniako autoen eskariaren ıultasun iraunkorra izan dira datu kaskar horien arrazoia.

### Adierazlearen azalpena

/I Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionalei eta enpresetako exekutiboei ɜnufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. ıbrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. lierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten akaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, onomia uzkurtzen ari den seinale.

# INGURU MAKROA

# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## AEB: KPI




## Datuaren analisia

**ontsumitzailearentzako prezioak** bere horretan mantendu ziren azaroan, eta zortzi hiletan izan iten irakurketarik ahulena eskuratu zuten. Gasolinaren prezioaren beherakada handiak azalduko ke hein handi batean portaera hori. Izan ere, azpiko inflazioak, energiaren eta elikagaien prezioak inpo uzten dituena, haien hegazkortasuna dela-eta, % 0,2 egin zuen gora azaroan, eta iazko hil erarekin alderatuta, % 2,2koa izan zen.

## Adierazlearen azalpena

Pla hilero prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu a ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, “erosketa-saskia" izenarekin agutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat nditu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa haztuko du.

kutxabank gestión

# ASTEKO DATUEN PODIUMA

## TXINA: INDUSTRIA-EKOIZPENA




### Datuaren analisia

**dustria-ekoizpena** urte arteko % 5,4 igo zen azaroan, aurreko hilabetean baino bost hamarren txiago. Datua urteko lehen hamaika hilabetetan metatutakoa baino txikiago izan zen, industria-oizpena urte arteko % 6,3 igo zenean, hain zuzen ere, urtarriletik urrira bitartean lortutakoa baino 1 portzentajezko puntu gutxiago.

### Adierazlearen azalpena

dustria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den presa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-ktorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegien erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia ten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

# INGURU MAKROA

# KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI…

| Data | Eremua | Adierazlea | Aurreik. |
|---|---|---|---|
| 12/17 | Eurogunea | Balantza komertziala SA | 14.0b |
| 12/17 | Eurogunea | YoY azpiko KPIa | % 1.0 |
| 12/17 | Eurogunea | Hileko KPIa | -% 0.2 |
| 12/17 | Estatu Batuak | Manufakturen inkesta New York | 20.0 |
| 12/18 | Alemania | IFO enpresen egoera | 101.7 |
| 12/18 | Estatu Batuak | Hasierako eraikuntzak | 1230k |
| 12/18 | Estatu Batuak | Hileko etxebizitza berriak | % 0.2 |
| 12/18 | Estatu Batuak | Hileko eraikuntza-baimenak | -% 0.4 |
| 12/19 | Japonia | Balantza komertziala | -Â¥630.0b |
| 12/19 | Alemania | Hileko ekoizpenaren prezioen indizea | -% 0.1 |
| 12/19 | Erresuma Batua | Hileko KPIa | % 0.2 |
| 12/19 | Eurogunea | Hileko eraikuntzaren ekoizpena | -- |
| 12/19 | Estatu Batuak | Bigarren eskuko etxebizitzen salmenta | 5.20 m |
| 12/19 | Estatu Batuak | FOMC tasen erabakia (sabaia) | % 2.50 |
| 12/20 | Erresuma Batua | MoM txik. salmentak autoen erregairik gabe | % 0.2 |
| 12/20 | Erresuma Batua | Banku-tasa Ingalaterrako Bankua | % 0.750 |
| 12/20 | Estatu Batuak | Negozioen egoera Philadelphiako Fed | 15.5 |
| 12/20 | Estatu Batuak | Hasierako langabezia-eskaerak | 219k |
| 12/21 | Japonia | Urte arteko KPIa | % 0.8 |
| 12/21 | Erresuma Batua | Kontsumitzailearen konfiantza GfK | -14 |
| 12/21 | Alemania | Kontsumitzailearen konfiantza GfK | 10.3 |
| 12/21 | Frantzian | Enpresen konfiantza | 102 |
| 12/21 | Frantzia | Hiruhileko BPGd | % 0.4 |
| 12/21 | Italia | Sentimendu ekonomikoa | -- |
| 12/21 | Erresuma Batua | Hiruhileko BPGd | % 0.6 |
| 12/21 | Estatu Batuak | Ondasun iraunkorren aginduak | % 1.7 |
| 12/21 | Eurogunea | Kontsumitzailearen konfiantza | -4.3 |
| 12/21 | Estatu Batuak | Diru-sarrera pertsonalak | % 0.3 |
| 12/21 | Estatu Batuak | Gastu pertsonala | % 0.3 |
| 12/21 | Estatu Batuak | PCE deflektorea MoM | % 0.0 |
| 12/21 | Estatu Batuak | Sentimendua Michiganeko Unibertsitatea | 97.5 |
| 12/21 | Estatu Batuak | Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn | 15 |

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

kutxabank gestión

## JRTSA:

ırtsako indizeen balantzea nahiko positiboa izan zen tearen bukaeran Europan, eta negatiboa AEBetan eta ıian. Orain arte merkatuetan eragin handia izan duten lantzak zertxobait argitu ziren azken egunetan. AEBen eta inaren arteko tentsio komertziala baretu egin zen, Txinak ıtatu Batuetatik datozen ibilgailuen inportazioei ezarritako ıga-zergak % 40tik % 15era murriztuko zituela iragarri elako. Italiak, bestalde, amore eman zuen EBren aurrean, a 2019rako defizitaren helburua % 2,4tik % 2,04ra jaitsi en. Theresa Mayk bere alderdiak aurkeztutako konfiantza-ɔzioa gainditu zuen, joan den asteartean egin behar zen ordioari buruzko bozketa bertan behera utzi ostean. Izan e, porrot ziur baten aurrean, lehen ministroak Brexitaren nari buruzko bozketa atzeratu egin baitzuen. Akordioa rrera ateratzeko ezintasunaren aurrean, May Bruselarekin du zen, negoziazioei berriro ekiteko eta eztabaidagai gusiari dagokionez (Ipar Irlandako muga) berme higarriak lortzeko. Nolanahi ere, asteko azken saioan, ıiako eta Ameriketako burtsek nabarmen egin zuten behera ınduko ekonomiaren moteltzearen inguruko beldurraren rrean. Izan ere, Txinako datu ekonomikoak ahulak izan en, baita xehekako salmentak eta industria-ekoizpena ere. ɛstalde, EBZren bilera egin zen. Bada, % 0an mantendu uen interes-tasak, eta 2019ko uda igaro arte maila horiei tsiko diela iragarri zuen. Gainera, urtarrilean bonuak ɔsteari utziko diola adierazi zuen, eta bonuen rrinbertsioak lehen interes-tasen igoeratik haratago amango dituela.

| INDIZEAK | PREZIOA | % Aldaketa Astean | Ald. % 2018 |
|---|---|---|---|
| MSCI WORLD (Local) | 1.492,91 | -0,86 | -5,88 |
| IBEX 35 | 8.886,10 | 0,80 | -11,53 |
| DJ EURO STOXX 50 | 3.092,60 | 1,11 | -11,74 |
| DJ STOXX 50 | 2.844,81 | 0,56 | -10,48 |
| FTSE | 6.845,17 | 0,99 | -10,96 |
| S&P 500 | 2.599,95 | -1,26 | -2,76 |
| Dow Jones | 24.100,51 | -1,18 | -2,50 |
| NASDAQ | 6.910,67 | -0,84 | 0,11 |
| NIKKEI 225 | 21.374,83 | -1,40 | -6,11 |
| MSCI GORAKORRAK (Lo | 54.065,99 | -0,35 | -11,19 |
| MEXBOL | 41.312,17 | -1,33 | -16,29 |
| BOVESPA | 87.449,50 | -0,76 | 14,46 |
| SHANGHAI | 2.716,00 | -0,47 | -21,58 |
| Errusia Rts Mosku | 1.116,50 | -3,58 | -3,29 |

## RRENTA FINKOA:

ıliako gobernuak 2019rako defizitaren helburua % 2,04ra ırriztuko duela jakin zenean, 20 op jaitsi zen herrialdeko risku-prima. Halaber, hamar urterako bonu espainiarraren rentagarritasuna 4 op jaitsi zen, % 1,41eraino. Core zorrari ıgokionez, Alemaniako hamar urterako tasa % 0,25ean antendu zen, eta epe bereko bonu amerikarrak, berriz, 4 ı egin zituen gora, % 2,89raino. Kredituaren diferentzialak, diz, estutu egin ziren.

| Gobernuen tasak | Maila | Aldaketa Astean | Ald. 2018 |
|---|---|---|---|
| ALEMANIA 2 URTE | -0,61 | -0,01 | 0,02 |
| ESPAINIA 2 URTE | -0,19 | -0,03 | 0,16 |
| AEB 2 URTE | 2,73 | 0,02 | 0,85 |
| ALEMANIA 10 URTE | 0,25 | 0,00 | -0,18 |
| ESPAINIA 10 URTE | 1,41 | -0,04 | -0,16 |
| AEB 10 URTE | 2,89 | 0,04 | 0,48 |
| ALEMANIA 30 URTE | 0,89 | 0,01 | -0,38 |
| ESPAINIA 30 URTE | 2,61 | -0,04 | -0,24 |
| AEB 30 URTE | 3,14 | 0,00 | 0,40 |
| **Kreditu-spreada (op)** | | | |
| MARKIT ITRX EUROPE 12/23 | 80,36 | -5,38 | 35,44 |
| MARKIT ITRX EUR XOVER 12/23* | 335,13 | -7,94 | 102,70 |

## BISAK / LEHENGAIAK:

exitaren inguruko ezinegonaren eta Europako datu makro skarren ondorioz, euroaren balioa % 0,82 jaitsi zen ılarraren aurrean. Liberak ere balioa galdu zuen, Mayk exitaren akordioari buruzko bozketa atzeratzeko erabakia ırtu ondoren. Lehengaietan, petrolioaren prezioa % 1,58 tsi zen. Izan ere, LPEEk argitaratutako azken txostenak, ı19an petrolio gordinaren eskaria egunean 100.000 upel ıtxiagokoa izango dela aurreikusten duenak, kalte egin ıitzion kotizazioari. Urrearen balioak, bestetik, % 0,79 egin en atzera, 1.238,45 $/ontza mailaraino.

| Dibisak | Maila | % Aldaketa Astean | Ald. % 2018 |
|---|---|---|---|
| Dolarra / Euroa | 1,13 | -0,82 | -6,00 |
| Yena / Euroa | 128,08 | -0,29 | -5,38 |
| Libera / Euroa | 0,90 | 0,48 | 1,16 |

| Lehengaiak | Maila | %Aldaketa Astean | % Ald 2018 |
|---|---|---|---|
| Petrolioa (Brendt) | 59,32 | -1,58 | -11,22 |
| Urrea | 1.238,45 | -0,79 | -4,96 |

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.